


ttüpi-ttapa

1994.eko martxoak 17 • 130. zenbakia

Elkarrizketa:
Lourdes Indaburu



**ARRANTZA DENBORALDIA
HASTEKO PUNTTUAN**

P.A.C.

Laguntza
Eskera
Azalerak 1994

94 Urtea



Nekazariak Abeltzainak

Zatoz guregana bazkalekuen deklarazioak egitera.

Nahitaezkoa izanen duzu 'Dentsitate faktorea' kalkulatzeko eta ondotik abeltzaintzarako primak eskatzeko.

Informatuko zaitugu, eskaera eginen dizugu eta zure izenean Nafarroako Gobernuan aurkeztuko dugu.

Bertze urte batez, Kutxaz fida zaitez. Pasatu gure bulegoetatik.

Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan

GANI NAFARROAKO AURREZKI KUTXA

DATUAK

❖ **EHNE** sindikatuaren zerbitzu teknikoko kidea da Lourdes, 30 urteko etxalartarra.

❖ Nafarroako esne-kuotaren erresebari buruz aritu ziren joan den hilabetean San Martin eskolan.

❖ Martxoaren 4ean ehundaka baserritar manifestatu ziren Iruñean kuotak, multak eta esnearen prezio apalak salatzeko.

❖ Esne-kuota Bruselasean berriz negoziatzea dezala eskatzen dio EHNEk Gobernuari, izan ere, estatu espainolak berez kontsumitzen duena baino kuota tikiagoa baitu.

TESTUA
JOSEBA IGARABIDE
ARGAZKIA
KARMELE TOLOSA

Lourdes INDABURU:

«Nekazariak ez daude ohituak beren eskubideak defenditzera»

ZER DA ESNE KUOTAREN ERRESERBA?


Mobilizazio ugari-
ren ondotik hamar mi-
lio esne kilo Nafa-
rroak geratzea lortu
zen. Orain horren ba-
naketa egin beharra
dago. EHNEk erre-
serba horren banake-
tarako erizpide batzuk
eman genition Gober-
nuari eta nahiz eta kasu
eginen zutela erran, ez
dute kasu haundirik
egin.

ZEIN ZEN BADA, ZUEN ESKAERA?

Gure eskaera
120.000 litrotik behi-
tiko kuota duten neka-
zariak erreseberba ho-
rretatik hartzea zen.
Bertzalde, kontutan
hartu behar da neka-
zarien adina etabeha-
rrezkoak diren inber-
tsioak.

NAFARROAKO ESNE ERRESERBAREN BANAKETAK ESNE KUOTAREN ARAZO KONPONDUKO DU?

Ez, nahiz eta horre-
tan itxaropen haundiak
izan nekazariak, ho-
rrek ez du bere ara-
zoak konponduko.
Argi eta garbi erran
behar da Madrilgo go-
bernuak Bruselasko
negoziazioan izan
zuen akats hori or-



daintzen ari garela.
Estatu espainolak
kontsumitzen duena
baino kuota tikiagoa
du. Hori da akats na-
gusia eta ondotikan
bertze guztiak.

NOLA KONPONDU DAITEKE ARAZO HAU?

Konponketa zaila
eta txarra du, ez baldin

badu Gobernuak Bru-
selasekin berriz nego-
ziazioan esnearen kuota.
Hori da guk alda-
rrikatzen duguna.
Gaur egun, gainera,
esne zentral aunitz
hasiak dira dagoene-
ko esne kuotaren
arauak aplikatzen ne-
kazari tikietan. Ber-
tze nekazari batzuk
guttiago produzitzen
dute, bertze batzuk
kuotak erosi edo alo-
katu. Errate baterako,
badakigu Kanariaseko
kuotarekin funtziona-
tzen ari direla baserri-
tar batzuk.

ETA NEKAZARI BATEK ZER EGIN DEZAKE PROBLEMATIKA HONEN ANTZINEAN?


Nere ustez, gerta-
tzen dena zera da, ne-
kazariak bere kabuz
irtenbidea bilatzen ari
direla, baino aterabi-
de kaxkar xamarrak
dira gaur egun daude-
nak. Irtenbide pertso-
nalak dira, problema-
tika orokorra ez dute
konpontzen.

Gure ustez, neka-
zarien mobilizazioak
egin beharko dira,
Gobernuak berriz ere
negoziazteko.

» *«Esne kuotaren arazoak konponketa zaila du, ez baldin badu Gobernuak Bruselasekin berriz negoziatzen. Hori da guk aldarrikatzen duguna.»*

ZABALDU DA ARRANTZARAKO DENBORALDIA

Urtero gertatzen den modura, martxoaren hirugarren igandean hasi eta uztailaren 31 bitarte, erreka bazterrak arrantzalez beteko dira. Azkenean, Nafarroako Gobernuak ez ditu 5 urteko lizentziak martxan jarriko.



arrantzaleek den dena prest dute arrantza denboraldiari hasiera emateko. Izan ere igande honetan eguraldi egokia baldin bada, nabarmena izanen da arrantzaleen presentzia erreka bazterretan sasoi honetako lehen piezak etxeratzeko irrikitan. Gehienak batez ere amuarrain arrantzara ateriko dira, bertze batzuk berriz, denboraldiko lehen izokina arrantzatzen saiatuko dira Bidasoaren ur haundietan.

Aurtengo arrantza denboraldia, halere, Nafarroako Gobernu eta Arrantzale Elkartearen arteko gatazkarekin hasi da. Nafarroako Gobernuak 5 urteko lizentziak ezarri nahi zituen 7.500 pezeten truke. Arrantzaleen Elkarteak, bertzalde, neurri honen kontra agertu dira, eta azkenean, Ingurugiro Departamentutik TTIPI-TTAPARI adierazi diotenez, orainarteko sistemarekin segituko da, urtez urteko lizentziak emanez, alegia.

FAUNA-BERRITZEAK

Jose Mari Mitxelena, Berako Arrantzaleen elkarteak kideak dioenez, azken urteotan ahalegin handia burutzen ari da Bidasoan amuarrain eta izokikumez berretzeko. Joan den urtean, errate baterako, 119.300 izokikume eta 153.000 amuarrainkume bota ziren.

IZOKIA BERRETZEN ARI DA BIDASOAN

Urte honetarako 75 izoki harrapatu ahal izanen dira Bidasoan. Berez, 75. izokia hartzen den egunean bukatuko da izokiaren arrantzaaldia. Halere, hondar eguna

TESTUA

JOXEMANUEL IRIGOIEN

ARGAZKIAK

JAVIER ORDOKI

«Agorralditan, zentralek kalte haundiak sortzen dituzte»

Arrantza kontutan luze ari-tua dugu Jose Mari, guztira 40 izoki inguru hartuak ditu Bidasoan. Berak dioenez «duela 5-6 urte izandako idorteak izugarritzko kalteak sortu zituen erreketako faunan, eta haren ondorioak ederki nabaritu dira». Halere, joan den udan bertan, antzeko zerbait gertatu zen Bidasoaren hainbat lekutan.


Erreka bazterretan, zuri-zuriak, amuarrain hilak agertu ziren oxigeno faltagatik. Uraren temperatura ere aspektu garrantzitsua da Jose Marik dioenez. «Ura hotzegia baldin bada, aurtengo negu sarreran gertatu den bezala, beren larruazaletan zauriak dituzten izoki eta amuarrainak gaixotu eta hil egiten dira»



Jose Mari Mitxelena
Berako arrantzalea

ESKUINALDEKO ARGAZKIA DUELA BI URTEKO DA. EGUN HORRETAN ZAZPI IZOKI ARRANTZATU ZIREN BIDASOAN, ARGAZKIAN AGERI DIREN BORTZAK, ETA BERTZE BI GEHIAGO.

1977AN 81 IZOKI
ARRANTZATZETIK
1982AN BAKAR BAT
ERE EZ HARTZERA PA-
SATU ZEN. AZKENEKO
URTEOTAN, HALERE,
BERRIZ ERE SUSPERTU
DA BIDASOAKO IZOKIA.



izanagatik, egun horretan egun osoan arrantza egitea zilegi izanen da, aurretik finkatutako izokin kopurua gainditzen bada ere. Dena dela, azken urteotako ebo-luzioak gorabehera haundiak izan ditu; 1977an 81 izoki harrapatzetik 1982an bakar bat ere ez harrapatze-
ra pasatu zen. Murriztapen ikaragarria, bistan denez. Garai hartan, 1979an, Ingu-
rugiro Departamentuak errekezain berriak izendatu zituen zonarako, Javier del Castillo eta Antonio Colás hain zuzen ere. «Ez zuten, seguraski, nahi bezala asmatu» dio Berako Arrantzaleen elkarteko kideak. Egoerari buelta emateko lan haundia egiten ari da azken urteotan. Iaz Bertizko errekan bota ziren izoki-arraul-

tzek eta duela bi urte Ezkurrako errekan. Izan ere, jakina da sortu den erreka itzultzen dela normalean izokia ugaltzeko. Negu honetan, halere, 'izoki pila gaixotu eta hil da' ugaldu aurretik dio Mitxelenak.

AGORRALDIK ETA ZENTRALAK

Uda partean, behin baino gehiagotan gertatzen den arazoa da, hainbat erreka zati gutieneko ur kopururik gabe gelditzen direla. Hori dela eta, Inguzugiro Departamentua eta 'Iberdrola' ren artean hitzarmena izenpetua dute, eta horren arabera, agorralditan zentralak erreketako gutieneko 'ur-etorri ekologikoa' errespetatzearen truke konpentsazio ekonomikoa dute Gobernuak emana ■

ARRANTZA DEBEKU OSOA DUTEN IBAI ETA ERREKAK

BIDASOAREN ARROA

- ▼ *Bidasoa ibaia*: Banaketa ubide guztietan debekua dago, Oronoz-Mugairin dagoen Bertizko Jaurerriko zubitik beheiti.
- ▼ *Baztan ibaia*: Martalekiko elkar-gunetik goitiko tartea, hura barne, eta adar guztiak.
- ▼ *Iztauz erreka*: Gorostapoloko ur-jauzitik goiti.
- ▼ *Beartzun erreka*: presatik goiti.
- ▼ *Anzolarte, Inzulegi, Bagalde, Arla, Etxegarai, Ibur errekek*: osoak, adar guztiak barne.
- ▼ *Aiansoro erreka*: osoa eta orohar Bertizko guztiak.
- ▼ *Marin erreka*: Libus zentraletik goitiko adar guztiak.
- ▼ *Zeberia erreka*: Marin erreka ezik, guztia Bidasoaraino.
- ▼ *Irurebieta eta Mendaur-Iraungo errekek*: osoak, adar guztiak barne.
- ▼ *Latsa erreka*: Arantzako angulategiko zubitik goiti eta Igantziako errotako presatik Bidasoaraino.
- ▼ *Tximista erreka*: Etxalarko zentraletik goiti eta Burdinolako presatik Bidasoaraino.
- ▼ *Ondalatz erreka*: Allegi eta Olazarko erreken arteko elkargunetik goiti.
- ▼ *Zimeldi, Ibardin, Zalain, Montoia eta Barraka errekek*: osoak, adar guztiak barne.
- ▼ *Endara erreka*: Paso Malotik Bidasoaraino.

LEITZARANEN ARROA

- ▼ *Erasote ibaia*: iturburutik Plazaola trenbiderainoko tartea eta adar guztiak.
- ▼ *Gorritzaran ibaia*: osoa eta adar guztiak.
- ▼ *Astomela ibaia*: Aresotik goiti.
- ▼ *Leitzalarrea ibaia*: goiko hiru ibaitarteen elkargunetik gora.

URUMEAREN ARROA

- ▼ *Bederan ibaia*: iturburutik lehenbiziko zentral hidroelektrikorainoko tartea eta adar guztiak.
- ▼ *Leitzalarrea ibaia*: Ubideko presatik goiti.
- ▼ *Artxinaga erreka*: Onbordekiko elkargunetik goiti.
- ▼ *Egibeltza, Isillas eta Alduntzin errekek*: osoak, adar guztiak barne.
- ▼ *Añarbe ibaia*: Elama erreka isurtzen den tokitik goitiko tartea. Baita Arroizpe, Burugorri eta Iturrola errekek ere.

EZKURRAREN ARROA

- ▼ *Ezkurra ibaia*: Pasakaitzeko elkargunetik goiti osorik.
- ▼ *Ameztia eta Anizpe errekek*: osoak, adar guztiak barne.

OLABIDEAREN ARROA

- ▼ *Olabidea ibaia*: Iriartearekiko elkargunetik goiti.

NIVEREN ARROA

- ▼ *Aritzakun erreka*: Maribeltze-neko errotatik goiti.
- ▼ *Urritzate erreka*: osoa.



LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 5.700 ALE

ARGITARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE

HERRIKO ETXEO PLAZA, 1

31780 BERA

TfNOA.: 63 11 88

FAXA: 63 12 91

zendaria: Joxemanuel Iri-

ien. **Publizitatea:** Miren

Armele Tolosa. **Erredakzioa:**

Rosario Arozena, Joxemanuel Iri-

ien. **Erredakzio taldea:** Pe-

ro Apezetxea, Juainas Paul,

Kristina Boan, Bittori Telletxea.

erriemaileak: Joseba Azpi-

zetxe, Esteban Arozena, Juana

Mari Saizar, Ainhua Mutuberria,

Man Isasi, Txema Aldabe, Pello

Urdangarria, Txema Urroz, Patxi

Urdangarrena, Daniel Martirena,

Abel Maia, Josune Etxebeite,

Mikel Mendiburu, Joseba Iga-

zoida, Alizia Olaizola, Margari

Urdangarri, Koro Irazoki, Mixel

Urdangarriain, Jacqueline, Marta

Urdangarria, Oskar Txoperena, Al-

berto Sansiñena, Pello Apeze-

ta, Aitor Arozena, Kristina

Urdangarria. **Kolaboratzaileak:**

OSKAR NAFARROA, Patxi Lasa,

Urdangarria, setxo Susperregi.

primategia: Gertu (Oñati).

ttiipi-ttapa ez du bere gain

erazten derrigorrez, aldizkarian

erazirik ez erranen eta eritzien

erantzukizunik

akunde Laguntzaileak:

Urdangarria, Leitza, Goizueta, Areso,

Urdangarria, Urdazubi, Zugarramur-

dieta eta Sarako udalak, Bor-

rietako Euskara Mankomuni-

teia, Malerrekako Zerbitzu

Mankomunitatea...

GAURKOTASUNEN GAIA

Zein da erreken problematika

Beharbada hainbertze zikinekin ohitzen hasiak gara...

Marisol TABERNA
'LAINOPE' Ingurugiro Taldekoa

Gure iduriz badira ibaiko urak eta ur-bazterrak kutsatzen duten isurkin kaltegarri aunitz:

- Lantegietatik isurtzen dituzten olio eta produktu toxikoak.
- Behitegi, zerritegi edo oilategi haundietako pixek eta gure etxeetako komuneko zuloatik botatzen ditugun janari hondarrek, zikinkeriak sortu eta arratoi familiak ugartu bertzetik ez dute egiten.
- Paseatzera atera aldiro nonahi eta nolanahi zabarkeria haundiz uzten ditugun plastikozko zakutuak.
- Arrantza sasoiaren arrantza-lele lejiatzaleen axolagabeak sortzen dituen kalteak...

Bidasoaren osasuna hobetzeko denon prestutasuna beharrezkoa da: bategatik administrazioarena, zergen zati bat depuradorarentzako izanik oraindik ez baitute jarri. Bestetik gutako bakoitzari dagokigun ardurara: komodidadez botatzen ditugun zikinak behar den tokian ikasi beharko dugu.

Erreka bazterrak garbitzea udalerrien kompetentzia da

Enrique CASTIEN
N.G.ko Ingurugiro Departamentua

Nafarroako Gobernuaren Ingurugiro Departamentuak erreka bazterrak garbitzeko diru-laguntzak eskaintzen ditu hala eskatzen duten udalentzat. Iaz, errate baterako, dirulaguntza dexente eman ziren, eta garbitu nahi den erreka bazterra Interes Bereziko Eremuren batean baldin badago, kasu horietan diru-laguntza bereziak izaten dira. Aurtengorako, halere, ez dago aurrikusirik gisa honetako aktuzio planik.

Dena dela gauza jakina da udalerririk bakoitzean burutu beharreko garbiketa lanak, generikoki hitzeginez eta normala den bezala, udal bakoitzaren kompetentzia direla. Hortaz, erreka bazterrak garbitzeko iniziatiba udaletatik ateri behar du. Bertze gauza bat da ubidea bera zerbaitengatik oztopena gertatuko balitz. Kasu horretan, munizipalak ez diren bertze erakunde zenbaitzuren kompetentzia izatera pasatuko zen.

Idorteak eman dio makilarik haundiena erreka faunari

Jose Mari MITXELENA
Berako Arrantzalea

Duela 5-6 urte izan zen idorte haundi hurrek izugarriko makilarik eman zion erreka faunari. Bidasoan urarik gabe gelditu zen eta zegoen ur pixarra zentralak hartzen dutenez... orduan pentsa! Alde batetik ur gutti, eta gainera, etxeko zikinak eta gainerako guziak ere errekarara joaten badira... kristoren ondorioak ekarri zituen horrek.

Geroztik, arrantzaleen elkarteak eta Ingurugiro Departamentua bera ere hor ibili dira Bidasoan osoa berri-tu nahian eta orain ondorio onak ere hasiak dira nabaritzen.

Dena dela problema hor dago, urteko sasoi guzitan gutxieneko ur kopuru bat segurtatu beharra dagoela erreka faunak bizirik irauteko, erdaraz 'caudal ecologico' deitzen dena.



Aldizkari honek Nafarroako gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du



BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia

121 errepide nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L.Felipe, Napoleón
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

BOTA BERTSOA

IRAKURLEAK MINTZO


**Errekak
zikinak daude**

Mikel ETXEBERRIA
Gozuetako Bertso Eskola
Neurria: zortziko handia

*Lantegitikan botatzen dute
zaborra errekan bera
onartzen duna, zalantzan nago
pertson kabala ote da?
Zeren zaborren ondorioaz
denok izorratzen gera
Eta ondoren ezingo degu
joan arrantzan egitera (bis).*

*Lengoan egon nintzen zubian
amuarraiei begira
eta bururi galdetzen nion
arraiak non ote dira.
Ez naiz harritzen zeren jendea
pasa egiten ari da.
Martxa honetan agur amorrik
ta ibaitako dizdira (bis).*

**Donamariako
alkate eta
kontzejalei**

Hilbeltzaren 27an Donamariako herriko ostatuan egin zen plenora joan ginenean ez genuen itxaropen haundirik, zuen joakaera ezagututa. Halere, joatea eta pista horrek sortzen zizkigun kezak azaltzea erabaki genuen. Gehien harritu gintuena, zuen erantzun zentzuga-beak izan ziren eta haien artean hau: duela 3 urte eman zitzaizuen konfidantza-erengatik nahi zenutena egiteko eskubidea duzuela. Egia al da hori? Horrela funtzionatzen al dute udalek? Argi eduki behar duzue herritarrok ordezkariak aukeratzeko dituguneean, herritarren eritzia kontutan hartzeko dela eta ez zuei, lau lagunei kasu honetan, bururatzeko zaizuen egiteko. Garbi aski ikusi duzue 160 lagun pista horren aurka daudela eta horrelako herri ttikian kopuru handia dela. Ez al da pentsatzeko modukoa? Logikoena eta demokratikoena solastea eta denon artean irtenbiderik egokiena bilatzea izanen litzateke. Ez al zaizue horrela iduritzen? Ongi aski ikusi

dugu zuekin ez dagoela solasterik. Gero erranen duzue jendea zuen aurka aritzen dela, zer nahi duzue ba? Herritarren eskubideak zapaldu eta gainera ixiltzea?

PISTAREN AURKAKO TALDEA
ENA.- 72.672.317

EGIKO kideari

EGIKO militanteak aldizkari honetan argitaratutako gutunari erantzutea erabaki du Baztango JARRAIK, gutuna tamalgarria iruditu baitzaigu.

• Jarrai BETI agertu da kontzientzia eragozpenaren alde. Duela hainbat urte, kontzientzia eragozpena borroka tresna egokia izango zenik ez genuen ikusten, nolana ere, beti defendatu izan dugu kontzientzia eragozpenarako askatasuna eta begi agertu izan da KAS alternatibari. On eginen dizu hau irakurtzea, zuek ukatutako gutzia bergogoratu duzue eta 'zipaioek' pasatzen dizueten informazioaz gain, beste informazioa - hobe - izanen duzue.

• Jarrai intsumisioa, armadarekiko gatazka tresnatzat jotzen du, horretan bete bete jo duzu. Armada horrekin aski ongi ezkontzen dira zuen alka-

te, kontseilari eta lehen-dakaria. Halere, Jarraien jarrera hau bertze talde antimilitaristek ere agerian dute. Honekin bat ez bazatoz talde antimilitaristekin ere ez zaude ados.

• Zure eritziz, 'Yoyes' intsumisa zen. Hipokrita ahaleña! Zuek ez duzue bidezkoa 'intsumisioa' hitza erabiltzea, ez baituzue honen aldeko jarrerarik erakusten. Ba al da Egiko kiderik intsumisioa eta gartzelan. Ba al da Egiko kiderik intsumisioaren aldeko lanean talde antimilitaristetan? Bakarrik ere. Zuek gazteriarren alde lanik ez duzue sekula ere burutu. Bertzeok egiten duguna kritikatu, hori bai! Urte honetan Gazte kontseilutik dirua ebatsi baino ez duzue egin. Jakina! Halako egurra halako ezpala! Alderdi usteletik, gazteri lapurra baino ez daiteke sortu.

BAZTANGO JARRAI


Zuzenketa

Malerrekako 'Behinpin' ez da Emakume Talde bat espezifikoki, era guzietako eskakizunak bultzatzen dituen taldea baizik.

**MAGNETISTA - NATUROPATA
ZURE BEGIAK ZAINTZEN DITU**
☞ BISTAREN ERREKUPERAZIOA

- Begi alferak, estrabismoa, kataratak, retinosis, begietako neuritis, begietako infekzioak, konjuntibitis, miopia...

☞ REHABILITAZIOA

- Artrosis, Artritis reumatoidea, bihurdurak, lumbalgiak, zerbikalgiak, psoriasis, diabetes, azaleko alergiak, zizareak, oinetako izerdiak, birusak, asma, buruko minak, kolesterola, erreuma, prostata

Kontsulta Ordutegia: Arratsaldeko 2etatik 10etara (Ordua eskatu)
San Marcial 7 - 4. - IRUN © (943) 62 30 55





EGIN

«Nola onar dezake Estatu honek esne-jasotzaile butsa biburtzea? Zergatik ezin diogu Estatuko abeltzainek gure demandari aurre egin? Zergatik egin behar dute holandarrrek. Kuota gehitzea eskatzeko eskubide osoa daukagu».

Mikel PETRIRENA
EHNE-Nafarroako lehendakaria
«Egin» 94-III-5

«Helduek orain arte erakutsi duten maila bera erakutsi dute Saran. Nire ustetan, jendartean gebien komentatu zena Silveiraren berragerpena izan zen, zerbait nabarmen-tzekotan nik hori nabarmenduko nuke».

Amaia TELLETXEA
Aranzako bertsolaria
Egunkaria
94-III-8

◆ Zertan aritzen zara lanean?

❖ Dantzarineako 'Patxi' Bentan, jatetxean serbitzari..

◆ Noiz utzi zenuen eskola?

❖ Hamabortz urtetan.

◆ Eskolan segitu izan bazenu, zer ikasiko zenuke?

❖ Modista. Jostea aunitz gustatzen zait.

◆ Zein da zuretzat inauterietako egunik hoberena?

❖ Astearteko eskea.

◆ Bordatxon disko-musika edo musika taldeak zuzenean?

❖ Taldeak nahiago ditut, disko-musika beti berdintsua baita.

◆ Dantzatu edo musika entzun?

❖ Giroaren arabera. Biak ere gustoko ditut.

◆ Bizio bat?

❖ Musika aditzen egotea.

◆ Zein da gehien gustatzen zaizun kotxea?

❖ Gasoilezko Clio beltza.

◆ Animaliak maite dituzu?

❖ Bai, batez ere katuak, zakurrak eta pittikak

◆ Hiria edo herria?

❖ Herria, lasaitasun gehiago dugu.

◆ Denbora libre nola pasatzen duzu?

❖ Landibarko kaxkorat Angelitari bisitak egitera joanez.



M^a Luz ETXAIDE

Urdazubiko gaztea



Zati honek **4.500 pzta.** balio ditu
4.500: 5.700 errebista = 0,79 pezeta errebista bakoitzeko

ALBAR TETXEA JATETXEA

HARAGI ETA ARRAINAN
ESPEZIALIZATUA

Erreserbak egiteko deitu 627637 ☎ra

Antoiu 26 • **LESAKA**



Ezkontzetako erreportaiak
argazkiak eta bideoa

MARKOAK eta MOLDURAK

•••••
•••••
•••••
•••••
•••••
•••••
•••••
•••••
•••••
•••••
•••••
•••••
•••••
•••••
•••••
•••••
•••••
•••••
•••••
•••••
•••••
•••••
•••••
•••••

Tfnoa.: 45 0825 • Nagusia 4 • **DONEZTEBE**

Tfnoa.: 58 01 55 • Santiago 40 • **ELIZONDO**



Errendimentua ateri nahi zaio Polikiroldegiari

Izan duen kostea kontutan hartuta, orain arte eman zaion erabilera murrizta da

KRISTINA BOAN

Hainbertze diru kostatzen den Polikiroldegiak, zor ugari utzi dizkio herriari, Berakoa baita Nafarroako udaletan zor haundienak dituena, martxoaren 3an nafar egunkari batek zioen.

Polikiroldegiak orain artean behinpean ez du errendimentu handirik izan. Duen zola berexiak erabilera murriztendu, ezin baita Nolanahi sartu Kiroldegian. Markatzen ez duten oinetakoak beharrezkoak dira eta tresnak ere, ezin dira bertzerik gabe zolaren gainean jarri. Beraz, guzi honek aukerak mugatzen ditu.

Baina bere garbitasunaz eta mantenuaz arduratuko direnak aukeratu direnez, espero da hemendik aitzinerat edozeinek probextu ahal izatea hango instalazioak.



'III. Margo-Marrazki Topaketa' zela eta, martxoaren 5ean hiru ikastetxetako haur mordoak bildu zen. Berendu ondotik, Takolo, Porrotx eta Pirrutxekin irri egin zuten Kultur Etxean.

Kuota bat ordaindu beharko du edozeinek Kiroldegia erabili nahi baldin badu. Dena dela, eskoletako ikasleentzako kostea udalak berregain hartuko du.

Bertzalde, gimnasio bat montatzeko asmoa dago, baina horretarako zazpi milioi pezeta inbertitu beharko dira eta sauna ere jartzekotan daude.

Gure Txokoako jubilatuen bazkaria

Gure Txokoako jubilatuek urteroko besata ospatu zuten otsailaren 27an. Eguerdikoa hamabietan Meza Nagusia entzun ondotik, 54 jubilatuek elkartu ziren bazkaltzera Iamotengan.

Atxiloketa

Berako Zalain auzoan bizi den Jose Luis Sebastian 'Sebas' detentua izan zen joan den astean Irunen daukan dendan. Gerotik egunero arratsaldeko 8etan, asanbladak burutu dira Berako Plazan eta asteburuan entzerrona egin da Herriko Etxean.

ttipi-flash

Lapurrak Eztegaran

Pilota Eskolak Eztegaran Pilotalekuan duen lokalean sartu dira materiala ebastera.

Zabaltze lanak 'Toki Ona'n

Toki Ona Institutua haunditzeko obrak hasiko dira hemendik gutira. Guzira 94,6 milioi pezetako aurrekontua dago horretarako eta 1.000m²ko azalera erabilgarria da. Ikastetxeko ardura-dunek diotenez, «zabaltze honek Bortzirietako 12 eta 18 urte bitarteko ikasleak biltzea lortuko du».

Agerra Mendi Taldea

Azken batzarrean bazkide berriak onartzea erabaki zuen. Horretarako, deitu 631119ra edo agertu elkartera arratsaldeko 7etatik 8etara.

Musika

18an Amaia Zubiria Kultur Etxean. 19an Nafarroa Oinezaren alde Tapia & Leturia eta Mikel Markez Eskolan.

BOTXO ostatua
Tfnoa.: 63 00 52
Zalain auzoa, BERA

ZALAIN JATETXEA
Eguneko menua eta karta
Boda eta banketeak ematen dira
Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 BERA

LOZOTEGI - JAIONE

Itzea 3, 630786 - BERA

Bixente TABERNA argazkilaria
Ezkontza, bataio eta komunio ERREPORTAIK
Tfnoa: 630597 • BERA

SAROB okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

Lesaka

Ikastolaren aldeko bertso saioa apirilaren 2an

Bertze zenbait ekitaldi antolatzea erabaki zuen Tantirumairuko batzordeak azken asanbladan

AITOR AROZENA

Tantirumairu ikastolak egindako batzorearen, iazko kontuak (19 milioi pezeta) eta aurtengo aurrekontua eta ekitaldiak onartu ziren. Horien artean lehenbizikoa apirilaren 2an, arratseko 10,30etan pilotalekuan egingen den bertso saioa izanen da. Bertan, Estitxu Arozena, Euskitze, Xebastian Lizaso, Telleria, Peñagarikano eta Egaña arituko dira bertso kantari eta Manolo Arozena izanen da gai-jartzailea.

Ondotikan, marmitako txapelketa edo gurasoen antzerki saioa bezalako ekitaldiak egiteko asmoa dago. Bertzalde, Eguberrian tokatutako loteria kobratzeko epea martxoaren 22an bukatuko dela adierazi dute Tantirumairu ikastolatik eta bazkide edo sozio berriak egiteko deia ere luzatu dute.



Karmele

Ikastolaren azken ekitaldian 80 bat lagun joan ziren eskiatzera

Celedonio Olagarai Jubilatutako elkarteak berria

San Fermin Jubilatutako pentsionisten elkarteak egindako asanbladan zuzendaritza batzorde berria aukeratu zen. Lehendakaria Celedonio Olagarai izanen da, lehendakari-ordea Francisco Olaetxea, idazkaria Juan Telle-

txea eta diruzaina Pascual Etxarte. Batzordekideak, berriz, Francisco Zapirain, Antonio Pikabea eta Bernardino Legasa izanen dira.

Bertzalde, CANek 250.000 pezetako dirulaguntza eman dio elkarteari.

Bertso txapelketaren finala 27an

Martxoaren 27an, arratsaldeko 4,30etan burutuko da Lesakako frontoian Nafarroako bertsolari txapelketa nagusiaren finala. Hau idazterako orduan, Manolo Arozenak eta Jean Pierre Mendiburuk eskuratua dute finalerako txartela.

ttipi-flash

II. Herri laisterketa

martxoaren 27an burutuko da, Batzoki elkarteak antolatuta. Frogak 10etan hasiko dira benjaminekin eta ordu batak aldera bukatuko dira helduekin. Apuntatzeko 637059 tfnora (Jesus M^a) deitu.

Bortzirietako

Euskara Mankomunitateari iazko diru kopuru berdina emanen dio udalak. Mankomunitateak %10eko igoera eskatzen zuen baina PNVk eta EAK kontra botatu zuten "herrirako mesedegaria dela frogatzen ez den bitartean" eta kulturako bertze kontuak aurtentzen berdin mantenduko direlako.

Karrikako

salmenta erregulatzeko ordenantza onartu du udalak.

Bi albinte

lanpostu izanen dira herrian, batez ere mendian sortzen diren arazoak eta mendizaina laister jubilatuko dela kontutan hartuz.

EROSLE

LESACA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

**Frexkuena
zugandik
hurbilago**

Bittiria 67 - Tfnoa:637264



Mariluz
ILEAPAINDEGIA

Emaiozu
itxura berri bat
zeure buruari

Plaza Zaharra 26
LESACA

© 637956
IGANTZIKO Bentak

ARRANO



OSTATUA

Legarrea - LESACA



Landagain Eskolaren antzerki lana saritua

100.000 pezeta eman ditio Nafarroako Gobernuko Hezkuntza departamentuak

PELLO ETA ALBERTO

Nafarroako Hezkuntza Departamentuak antolatutako «Euskal Antzerkigintza» programan, antzerki-talde euskaldunak sortzeko asmatua, 100.000 pezetako saria jaso du Landagain Eskolak. Sari hori 1.993. urtean antzeztutako «On Inozentzio emazte bila» eta «Abokatu famatua» izeneko antzezlan edo obregatik eman zaio. Nafarroako eskola publiko nahiz pribatu guzietan irekiak dauden sari horietan bigarrena eman diote Etxalarko eskolari.

Sei hilobi...

banatu ditu Udalak hainbat eskatzaileen artean: Xabier Bizen-



Nafarroako eskolen artean 2. saria eskuratu zuen Etxalarko antzerkiak

te, Isidoro Gallardon, Klemen Unanue, Toribio Agesta, Jovita Maia eta Jose Mari Santesteban. Horrela, gerorako utzi da kanposantuaren haunditzearen proiektua.

Larraburuak Junta berri

Larraburu Jubilatuen Elkarteak Batzar nagusia egin zuen otsailaren 27an. Kontu arruntez gain junta-
ren zati bat berri-
zuen Batzarrak: Alda-

lurko Bordako J. Martin eta Zamateluko Ziprianok kargua utzi eta Martikoneko Fermin, Iribarreneko Jabier eta Etxe Maiteko Jabierrek hartu zuten.

Personai



Manolo Bizente «Latsabe» Gartxinea

Zu aspalditik hasia zaitugu arrantzan.

Mutiko kokorrek ginela Bidasoara eta herriko errekarera ateratzen ginen. Xarboak, aingirak edo amurrainak egunero izaten genituen jateko. Herriko errekan sartu eta gaur zerrategia den horretan ateratzen ginen.

Zertan aldatu da arrantza urte hauetan?

Arraina gutitu da. Eta ez arrantzale gehiago delako. Arraina gutitzeko arrazoia aingira ugari izatea da. Aingirak arrain tiki-
a jan egiten du, kiskalu edo txipa eta amurrainkumea. Bertetik, uraren pozoia. Gaur den egunean urak zikinkeria eta pozoigarri aunitz dakar.

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14
Beheko Plaza 8, LESAKA

BEKO ERROIA
Lore eta landareak
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

ARRATZUBI
ardotegia
Tfnoa.: 63 72 79
Bittiria karrika - LESAKA

XATURETKEA

JATETKEA
Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

KOXXKONTA

Sagardotegia zabalik
Deitu erreserbak egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

HARITZPE
JATETKEA

KAXULAK • GOSARIAK • BAZKARIAK
Sukaldaritzarik hobereana xokorik politenean

Gurutze Etxea - Jauregieta auzoa - Tfnoa: 635038
• ETXALAR (NAFARROA) •

Udalak Berrizaunen duen 'Maestraren Etxea' salduko du

618 lagun omen gara aurten Igantzin azken eroldaren arabera, iaz baino zertxobait gehiago

OSKAR TXOPERENA

Igantzikoko Benta edo Berrizaun auzoko 'Maestraren etxea'z jabetu nahi duenak oraintxe du aukera, udalak subastatu egin behar baitu hilabete honetan. Aspaldian deustarako erabiltzen ez dela dio eta ondorioz, hondatzen ari omen da. Hasierako salneurria 5.346.000 pezetakoa gehi IVA da, eta martxoaren 21a baino lehen eraman beharko dira Herriko Etxera proposamenak, 106.920 pezetako behin-behineko fidantza ordainduz.

Hurrengo egunean irekiko dira sobreak eta eskeintzarik hoberenari emanen zaio etxea.



Itxura aldaketa handia hartu du Txilarne inguruko zati horrek, bertan zegoen lurra hustu baitute eta kutxa berriaren zimenduak egin. Bertzalde, joan dira dagoeneko errepidea moldatzen aritu diren makinak. Jakina denez, arrail handiak agertzen ari ziren orain dela gutti egindako bide zabaltzeetan.

618 biztanle bizi gara aurten Igantzin

Udalak egin berri duen errola edo zentsoan 618 lagun omen gara momentuan Igantzin bizi

garenak. Hauetatik 327 dira gizonezko eta 291 emakumezkoak. Kopurua altxatzea alde batetik

8 jaiotza eta 2 heriotza izateak eragin du, eta bertetik kanpoetik etorritako jendeak.

❖ 93an zehar izandako zakurren alta eta bajak norberak martxoaren 26a baino lehen eman beharko ditu udaletxean, bulego orduetan.

SASKI
OSTATUA
LESAKA


LORA DENDA
TXIRULA
Bitirio LESAKA
627542
bitixkeriak • opariak • eskulangintza

GRUPO  ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

IGANTZIKO UDALA
Igantziko Udalak, plegu itxiaren bidezko enkante irekian, salgai jarriko du "Andereñoaren etxea" bezala ezagutzen den etxebizitza, haren xehetasunak ondokoak direlarik:
Berrizaungo auzoan eraikina, 2 oinekoa, eraikitako azalera totala 143,8 metro karratu eta erabilgarria 108 metro karratukoa delarik.
Hasierako prezioa: 5.346.000 pezeta.
Behin-behineko fidantza: 106.920 pezeta.
Proposamenak, Udaletxean aurkeztuko dira, 1994.ko martxoaren 21eko eguerdiko ordu biak baino lehen, plegu itxiak hurrengo eguneko 12tan irekiko direlarik.
Baldintza ekonomiko-administratiboak Udaletxeko Idazkaritzan egonen dira
Igantzi, 1994ko martxoaren 1an. Alkateak.

 **INAKI ITURRIA**
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Instalazio zaharren berritzeak
PORTERO AUTOMATIKOAK
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe
Jauregieta 12
© 635028 - 635246
31760 ETXALAR
Curtidores 5 - 1. ezk.
© (943) 61 24 24
20300 IRUN

FOTO GOIKO ESTUDIOA



**Lehengo lokalaz gain
Orain estudio berria Kanttonberri karrikan**



- *Komunio argazkiak*
- *Ezkontzak*
- *Estudio argazkiak*

**Eskatu ordua eta eguna
Ordutegia: 9,30etatik 13etara eta 16,30etatik 20etara**

Altzate 26 • Tfnoa: 630515 • BERA

Amaia eta Aitor Telletxea bertsolari txapelketan hasiak dira

Amaiak Saran ez zuen lortu finalerako sailkatzea eta Burlatan kantatu beharko du



Futbito taldekoak ere hasiak dira Nafarroako txapelketan parte hartzen



Amaiak ez zen finalerako klasifikatu baina igande honetan Burlatan bertze aukera bat izanen du

Egunkaria

MARTA ITURRIA

Martxoaren 6an Saran eman zitzaion hasiera Nafarroako bertsolari txapelketari. Lehenengo saio honetan Manolo Arozena izan zen irabazle 502 punturekin, horrela zuzenean finaleira pasatuko dira bera

eta bigarren gelditu zen Mendiburu. Arantzatik bi bertsolarik hartuko dute parte Amaia eta Aitorrek, lehengo urtetik Luis Mari falta baita.

Amaiak ere Saran eman zion hasiera txapelketari, bortzgarren postua lortu zuen

seigarrenarekin berdinez: 473,5 puntu. Berak kontatu digunez ez zen berak uste bezain ongi aritu, halere bere lanaren puntuaketarekin gustura gelditu omen zen.

Asteburu honetan Aitor aritzekoa zen Elizondon.

Herri kirol taldeen egutegia zehaztua

Irurtzunen egindako saioaren ondotik Arantzako herri kirol taldekoek honako saioak egin beharko dituzte: 19an Bidarretan, 27an

Arraiotzen, apirilaren 17an Arantzán. Erdifinal eta finalerara ailegatzen badira, apirilaren 24an Ultzaman eta 30ean finala Lekunberrin.

IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA
Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

ATERPE
jatexea
Tfnoa.: 63 41 79
ARANTZA

ZIZKA
OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa

Altzate 28 - BERA

ESTHER ATEAK, C.B.

Zarandia 9, ☎ 627584 - LESAKA
☎ (943) 610319 - IRUN

- ➔ Parket flotantea
- ➔ Tarima
- ➔ Kortxoak
- ➔ Ate korrederoak dituzten armarioak
- ➔ Paretan sartzeko armarioak

ANTZUZELAI
S.L.

IRUNGO errepidea - 31780 BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

| | |
|---------------|------------|
| Antzinaldeak | Tximiniak |
| Angeluak | Erlaizak |
| Orma antzinak | Moldurak |
| Leihoak | Zokaloak |
| Ateak | Hilarriak |
| Arkuak | Marrazkiak |
| Pilareak | |

'Abujardadoa' Mazizoa
Zahar antzekoa Txapeatua

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK



Urrezko Ezteiak ospatu zituzten Ermitagoiako Domingo eta Mariak

Bertzalde, bi zauritu izan ditugu herrian lanean ari zirela gertatutako istripuen ondorioz

IXABEL ETA JOSUNE

Ermitagoia base-riko Domingo Eizagirre eta Maria Otxandorenak otsailaren 26an Urrezko Ezteiak ospatu zituzten. Ospakizun eder hau meza batekin hasi zuten. Ondotik bazkaria izan zuten, Domingo eta Mariaren sei seme alabetatik bortzekin (bertzea Ameriketan baitago) eta hauek emandako ilobez inguratuak.

Lanean zaurituak

Joan den astean Sanzberro eraikuntza enpresako bi langile zaurituta gertatu ziren. Lehenbiziko istripua, Tresabaita etxean bigarren pisuan lanean zaudela gertatu zen.



Ermitagoiako Domingo eta Maria bere ezkontzaren 50. urtemuga ospatzen seme-alaba eta ilobekin batera

Meliton biga baten ganean zegoela, hau hautsi eta behitiraino larri zen. Dena den, ospitalera eraman ondotik protagonista na-

gusia beldurra izan zela konturatu ziren eta zorionez gauza larririk ez zuela ikusi zuten. Hori bai, gorputz osoa kolpez bete-

ta omen dauka.

Biharamonean, Jo setxo bertze langilea ere behatz batean zauritu zen, baina honek ez du deus larririk.

Lapurrak

Oraingoan ere lapurrak ditugu nagusi eta noiznahi hemen dauzkagunez, badirudi Sunbillako herria oso maite dutela. Gau batean etorri, Ginda ibiltokiko bi bloketan sartu eta mendiko bizikletak hartu zituzten eta hirugarren bloketik berriz, bertze bizikleta bati bi gurpilak kendu zitzioten. Hori nahiko ez zutenez, Fernandon harategira bisitatxo bat ere egin zioten eta berak erraten zuenez ez zioten gauza haundirik eraman, "lauzpabortz mila pezeta ganbioetan eta gehiagorik ez".

zurtitaren **URTARO BERRIEN ARROPAK**

 San Migel auzoa 27, 450883 - DONEZTEBE

IBARROLA
HAURRENDAKO ARROPA • MERTZERIA
 Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 DONEZTEBE

FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBEN
MALDAERREKA, S. L.
 Egunaren 24 ORDUTAN zure esku gaituzu.
 ZERBITZU GUZIAK EGITEN DIRA
 Tfnoa: 637404

MANUEL TABERNA
 Edari Banatzailea
Errefreskoak, Ura, Ardoak, Likorrak, Txanpaina
 Tfnoa: 63 10 27 • BERA

Doneztebe

Denda saila ideki gogo dituzte herrian

Bertzalde, martxoaren 27an egingen da udal liburutegiaren inaugurazio ofiziala

TXEMA ETA KARMELO

Denbora guttiren barrenean Maldaerreaka funeraria, Arin Serbitzuak eta Saioa Boutique ideki dira eta hemendik denbora guttira bertze bortzpa-sei berri izanen ditugu. Bertzeak bertze zapatadenda, argazkidenda, liburudenda, haurren arropa denda, taberna berria...

Aspalditik judioen herria izenaz deitua izan bada Doneztebe, merkataritzagatik alegia, orain zer erranik ez. Baina hainbertze denda idekitze honek erreflexio bat egitera garamatza: inguruko lantegi haundiak idekiak doi-doi mantentzen dira eta jendeak aterabide pertsonalak bilatzen dituela.



Mendaroko haurtxoak euskalategia bisitatzen egon ziren.



Karmelo Rekarte izanen dugu herriko berriemaile hemendik antzina, Txema Aldaberekin batera.

Udal iburutegia 17an idekiko da

Azken ordun aldaketa bat izan da eta martxoaren 17an (gaur) arratsaldeko 6etan egingen den udal liburutegia inaugura-

tzeko ekitaldi ofiziala. Haurren bisitaldiak eta beraiendako hizketaldiak hasieran pentsatutako egunetan egingen dira.

❖ Martxoaren 20an hasten da arrantza sasoa: Zizarerik ezin da erabili, eta besta eguna ez bada, asteartetan ezin da arrantzatu. Arrantzale bakoitzak eguneko 5 amurrain har ditzake.

❖ Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatearen lokalak, Euskara Zerbitzua, Erreka Taldea etabarrendako egoitza (lehengo postetxea, alegia) barrendik moldatzen ari dira.



BAKEROEN BOUTIQUE

ZURE MODA ARROPA BAKEROAN ETA OSAGARRIETAN

Orain Donezteben

Markarik onenak: LEVI'S, PEPE, CHEVIGNON, LIBERTO...

ETORRI EZAGUTZERA

Nagusia 7 • Tfnoa: 451704 • DONEZTEBE



CRISTALERIA VELATE

BAINURAKO MOBLETAN SEKULAKO ESKAINTZA

Kontsultazazu konpromisorik gabe



• **60ko MOBLEA**

MARMOLEZKOA
ISPILU-ARGIDUNA eta BALDAREKIN

☛ *30.000 pezeta + IVA*


.....

• **70ko MOBLEA**

MARMOLEZKOA
KONKETA edo LABABOA
MANDU BAKARREKO ITURRIA
ISPILU-ARGIDUNA

☛ *49.000 pezeta + IVA*

.....



• **80ko MOBLEA**

MARMOLEZKOA
KONKETA edo LABABOA
MANDU BAKARREKO ITURRIA
ISPILU-ARGIDUNA

☛ *50.000 pezeta + IVA*

.....

• **100ko MOBLEA**

MARMOLEZKOA
KONKETA edo LABABOA
MANDU BAKARREKO ITURRIA
ISPILU-ARGIDUNA

☛ *61.000 pezeta + IVA*

HELBIDEAK:

Merkatari 5, DONEZTEBE • Tfnoa: 450991

Pedro Axular 1, ELIZONDO • Tfnoa: 580825

Villaba Etorbidea 12, IRUÑEA • Tfnoa: 132021

Mendillorri (IRUÑEA) laister zabalduko duguna



Autodefentsa ikastaroa bukatu dute emakumeek

Arrakasta ikusirik 30 ordutako bertze bat egiteko asmoa omen dago

IBAN ISASI

Autodefentsa ikastaroa burutu zen duela hiru bat asteburu zonanako 'Egizan' emakume taldeak antolatuta, udaletxeko ganbaran. Irakaslea Iruñeko Marisol zen eta Ituren eta inguruko herrietako emakume talde batek parte hartu zuen. Hauek erran dutenez, etorkizunean 30 ordutako ikastaroa buruzko pentsamendua dute, oraingo honek izan duen harrera ona ikusita. Bertzalde, Emakume Langilearen Eguna ospatzeko 'Egizan' erakundeak antolatuta afaria burutu zen Iturenen martxoaren 5ean eta adin guztietako emaku-



Elizarako bidea auzolanean moldatu da

Artxiboa

meak bildu ziren bertan.

Auzolana

Auzolana burutu

zen martxoaren 5ean Iturendik elizara doaien bidean. Herri-tarrek bide hori konpondu, argirako

tuboak jarri eta ur kanaletak egin zituzten.

Idazmakina ikastaroa

Iruñeko 'Estudio

mecanográfico Navarra' enpresak antolatuta Iturengo mutikoen eskolan ikastaroa egin nahi da. Ikastaro hau 10 urtetik aurrerako gazte zein helduentzat zuzenduta dago. Taldeak ttikiak izanen dira, eta antolatzailerik erran dutenez ikastaro hauen emaitza guztiz frogatua dago. Ikastaroaren bukaeran, gainera, diploma bat eskuratuko luke ikasleak.

Kurtsoa bost hilabetetan burutuko da eta 19 ordutako ikusentzueteko praktiketara oinarritua dago. Dena dela, informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero edo izena emateko, 130672 telefonora deitu.

ETXANDI TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN • Tfnoa: 45 04 91



- OTORDUAK •
- LOGELAK •

Tfnoa: 450793

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK



ERRO BIDAIK

- × HERRIAK
- × MENDIAK
- × TURISMOA
- × TREKING eta BIDAI ALTERNATIBOAK

ADUANAKALDEA, 5

☎ 943 - 615177

☎ 943 - 619489

FAX 943 - 619517

20.300 IRUN

BIDAI AGENTZIA
G.A.T. 2.015



AKORDEOIAREN GOI-MAILAKO AKADEMIA

Angel Manuel Belio

AKORDEOIAK SALDU ETA ALKILATZEN DITUGU

DOMINĒNEA Etxea
San Andres karrika, 40 - NARBARTE

☎ 943 - 61 50 55

NEKAZARITZAKO PRESTAKUNTZA

NEKAZARITZAKO JARDUERA BERRIEI BURUZKO IKASTAROAK DONEZTEBEKO JUANSENEAN

Nekazaritzako Jarduerak

- FRUTA ARBOLEN KIMATZEA
- SAGARDOTAKO SAGARRA
- OIHANGINTZA
- BARATZEZAINZTA INTENTSIBOA
- FRUTONDO TTIKIEN LABORANTZA
- SENDABELARRAK ETA LANDARE URRINTSUAK
- MINDEGIAK (MENDIKO LANDAREAK ETA APAINKETAKOAK)
- NEKAZARITZA EKOLOGIKOA
- ZIZAGINTZA

Etxeko Produktuen Fabrikazioa

- ETXEKO MODURA EGINDAKO HESTEBETEEN FABRIKAZIOA
- MERMELADA ETA PATTARREN FABRIKAZIOA
- ARDI-GASNA FABRIKAZIOA
- BEHI-GASNA FABRIKAZIOA
- ESNEKIEKIN EGINDAKO POSTREAK
- BARAZKI KONTSERBAK

Landa-turismoko Jarduerak

- LANDA TURISMOA
- ZALDI GAINEAN IBILTZEKO IKASTAROAK
- MENDIKO GIDARIAK

Ganaduzaleen Jarduerak

- FERRATZEA
- ARDIEN ILE MOZTEA
- ABEREEN AZAZKALA ZAINKETA (I)
- ABEREEN AZAZKALA ZAINKETA (II)
- MENDIKO ZERRIAK
- BASERRIKO OILASKOAK ETA EHIZAKO ANIMALIEN HAZTEGIAK
- AHATEEN GIZENTZEA

Bestelako Jarduerak

- NEKAZARITZAKO MEKANIKA ETA SOLDADURA
- ERLANTZA
- ZAKURREN HEZIKETA
- MERKATURATZEA ETA MARKETINA
- ARTISAUTZA
- NEKAZARITZA ETA INGURUGIROA

5B XEDE-ESKUALDEA

Informa zaitetz

ITG

NEKAZARITZAKO PRESTAKUNTZA
TEKNIKA ETA KUDEAKETA
INSTITUTUAK
Telefona: 27 80 11



Zubieta

Gizonezkoak zerbitzari emakumeen afarian

Larogeitamar bat bildu ziren eta gaua umore ederrean igaro zuten

AINHOA MUTUBERRIA

Martxoaren 5ean izandako emakumeen afaria gertakizun mundiala izan zen. Meza entzun eta gero, Ertamerikari buruzko filmak ikusi zituzten elizan bertan, neska batzuk joareak jotzen zituzten bitartean. Esan beharra dago afarira ia ia ez zela gizonik azaldu. Afaltzera 90 atso elkartu ziren eta zerbitzaileak mutilak izatea—urtean behin bada ere— izan zen jende guziaz gehien harritu zuena. Gero, trikitilarien soinua dantzatu zuten umore ederrean eta gaua ongi amaitzeko, tabernaz taberna ibili ginen goizaldera arte.



Afariaren ondotik, trikitilariak eta umore ona ez ziren faltatu Ainhoa

Martxoaren 20an Isabara Elutsarekin

Elutsa elkarteak beste mendi irteera bat antolatu du. Oraingoan Isaba iza-

nen da hilabete honetako 20an, goizean joan eta arratsaldean bueltatzeko. Azken

elurrak aprobetxatu nahi dituenak izen ematera anima dadila.

Donamariako errota subastan salduko da hilaren 25ean

Martxoaren 25ean, eguerdiko 12etatik aitzinera burutuko da Donamariako Herriko Etxean bertako errota saltzeko subasta.

Hasierako prezioa 4 milioi pezetakoa da (IVA konstatu gabe) eta enkanteko tantu bakoitza 5.000 pezetakoa izanen da.

Errotak 188m² ditu eta horretaz gain, inguruan beritze 300m² lur salduko dira enkante honen bidez.

Interesatuak euren karneta eraman eta hasierako prezioaren gain % 5a paratu beharko dute fidantza gisara. Subasta ahoz egingen da.

EPI TELLETXEA

IGELTSEROA

Amezti Berri • Tfnoa: 450749 - 450751

DONEZTEBE



SANTAMARIA

Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan

Eguneko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



TLALOK

LORAZAINTZA MINDEGIAK

- X LORATEGIETAN OBRA ETA ZAINTZE LANAK
- X APAINKETAKO ETA MENDIKO PLANTEN MINDEGIA
- X SASI-GARBITZE LANAK

Urritzokieta Auzoan • ETXALAR

Tfnoa: (943) 62 25 69 (etxean)

ETXALAR



URRITZOKIETA



← Irun Iruñea →

N-121-A

ZILO BOLAK EGITEKO PLASTIKOA

[®] **SILOTITE**
BONTITE

Plastiko luzaerria belarra bolatan sartzeko

- BELARRA ENSILATZEKO ERABILTZEN DEN PLASTIKOEN PRODUKZIOAN NAGUSI GARA.
- KOLOREAK: XURIA ETA BELTZA. HIRU KAPAKO PLASTIKOA GUK BAKARRIK EGITEN DUGU.
- 6 URTEKO ESPERIENTZIA DUGU
- KALITATE ETA PREZIOAREN ARTEKO ERLAZIORIK HOBERENA

**EZ DIEZAZUTELA ZIRIA SARTU IMITAZIOREN BATEKIN
 KONTUTAN HARTU ZENBAT BELAR KILO ARRISKATZEN DITUZUN**



– ESKARIAK BEREHALA ZERBITZATZEN DITUGU –

GALDETU PREZIOAK KONPROMISURIK GABE



AROZ - BERRI, S. A.

MAKINERIA

N-121 errepidea, 54. km • ☎ 581021 • Faxa 452 103
 31730 IRURITA



Artea eta Kultura kanpainaren ekitaldiak aurrera doaz

Aipagarrienak, bizidunen tailerra ekainan eta Jon Bergaretxe abeslariaren kantaldia irailan

ESTEBAN AROZENA

Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzaz urtero antolatzen den 'Artea eta Kultura' kanpainari hasiera eman zaio dagoeneko, inauterietako 'Trebeska' taldearekin.

Dena den, ekintzarik interesgarrienak atzetik datoz. Ekainaren 6,7 eta 8an tailer-erakusketa bat burutuko da, marrazki bizidunak egiteko prozesua erakutsiz. Abuztuaren 13an, Kika, Koko eta Moko pailasoak ikus ahal izango ditugu. Eta aurtengo ekintzei bukaera Jon Bergaretxe abeslariak emango die irailaren 17an.



Belagua aldera joango dira Umore Ona elkarteko mendizaleak

715.000 pezetako aurrekontua du aurtengo kanpainak eta dirutza honetatik 300.000 pezeta ingu-

ru Nafarroako Gobernutik jasotzeko esperantza du udalak. Udalarekin batera Umore Ona elkarteak,

gurasoak eta Gazte Asanblada ekitaldi hauek aurrera eramango dituen taldeko partaide dirla.

Mendi irteera Belaguara

Umore Ona elkartearen mendiko atala Belaguara joango da, apirilaren 16an eta 17an. Gaua, bertako mendiko-aterpean igarotzeko asmoa da, eta 40 lagun inguru animatzen badira behintzat 2.000 pezetan truke egin daiteke bidaia.

Belaguara ailegatu-takoan bi aukera egongo dira: mendira igo edo fondoko eskia egin Aretten. Interesatuak Maritxu edo Urrutina tabernetan izena eman dezakete martxoaren 20a arte.



Arau Subsidiario berriak ezagutzera eman dira

Jende asko pasatu da Herriko Etxetik

JUANA M^a SAIZAR

Jendearen kezka nagusia baso eremu bat lur urbanizagarria bihurtzeko zenbat ordaindu behar den izanda. Urteko eta m² bakoitzeko 1,8 pezeta ordaindu beharko lukete kontribuzio gisara. Udalak, hemen dik aurrera egiten diren etxebizitzak bi planta eta soto batekin egitea eskatu du eta etxebizitza egiteko 600 m²ko eremu bat



beharko da. Beste batzuren eskaera udalak

terreno batzuk erostea izan da, gero saltzeko

edo etxebizitzak bertan egiteko.

ttipi-flash

- ❖ **Emakumeen**
eguna ospatu zuen 19 laguneko talde batek, etxeokandreen egoerari buruzko hitzaldi batekin hasiz eta afariarekin bukatuz.
- ❖ **Gas-Butano**
Gas-Butanoko langile faltsuak ibiliak dira etxez etxe kobratzen bigarren urtez. Aurten atxilotu omen dituzte.
- ❖ **Karreterako**
obrak laister hasiko omen dira. Espropiazioak eginak dituzte dagoeneko.
- ❖ **Lapurrak**
sartu dira elizan eta dirua eraman dute.

Sari garrantzitsua lortu dute eskolakoek bideo lehiaketa batean

Euskal Herria osoko larogeitamat talderen artean seigarrenak gelditu ziren eta 150.000 pezeta eskuratu dituzte



JOSEBA AZPIROZ

Leitzako eskolako D ereduko 6. mailako ikasleak parte hartu zuten Euskadiko Kutxak antolatutako bideo txapelketa batean. Txapelketa Euskal Herria mailan izan da eta OHO, BBB eta Lanbide Eskoletako 90 taldek parte hartu dute. Leitzarrak seigarren gelditu dira eta 150.000 pezetako saria irabazi dute. Mikel Ilarregi irakaslearen zuzendaritzapean egindako bideoan, korbata saltzaile baten gora-beherak kontatzen zituzten.



Parkeak izugarrizko arrakasta lortu du moldatu zenetik Arg. JOSEBA

Rock kontzertua

Martxoaren 26an, larunbata, gaueko 11etan, pilotalekuan sekulako rock jaialdia izango dugu, herriko gazte talde batek antolatuta. Sutagar, Bizkarrezurra eta Lin Ton Taun aditzera izugarrizko jendetza etorritzea espero da.

Truk txapelketaren finala 5ean jokatu zen

Martxoaren 5ean jokaturako truk txapelketaren emaitzak hauk izan ziren:

- 1.- Joxe Fermin Lizarraga eta Luis Javier Iturrarte.
- 2.- Ignacio Azpiroz eta Carlos Agirre.
- 3.- Joxe Manuel

Aramendia eta Iñaki Ortiz.

4.- Juan Mari Saralegi eta Maite Agirre.

Hamabi bikotek parte hartu dute eta finalaren ondotik afaria izan zuten Xagu eta Xatur trikitilariek alaituta.

Okerrak zuzenduz

Jesusa Lazkano Larrea, adin gehien duen leitzarrak 93 urte dituela jarri genuen aurreko alean. Datu hori gaizki dago, izan ere 94 urteak iazko abenduan beteak baititu Jesusak.

Bakoitzari berea eta barkatu okerrak.

ttipi-flash

❖ IKA

euskalduntze erakundeak TTIPITTAPAREN bidez zabalduko 'Etxetik plazara' alfabetatzeko aldizkariak erantzun ona jaso du Leitzaldean. Hogeitik gora dira euskaltegira eramandako erantzun txartelak baina hasierako kopuru polita bada ere, aletik alera handitzen joan behar du, pena mezezi baitu alfabetatzeko ahalegin ttiiki bat egiteak.

❖ Parkeak

izugarrizko erabilera dauka moldatu zenetik. Orain sortzen den arazoa, batzuk zakurrak beren egin beharrak egitera eramaten dituztela da. Udalak debeku seinaleak jarriko ditu. bakoitzaren portae-ran dago soluzioa.

ADUR TABERNA

Pintxoak, kaxuelak eta bokatak

Tfnoa: 610864 • LEITZA

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

BERA © 630735 • IRUN © (943) 622305



VITALICIO ASEGUROAK

M^a JESUS BARAIBAR ASTIBIA

- Herriko Plaza 5, Behea
- 31870 LEKUNBERRI
- © (948) 60 45 71

**GRUPO
VITALICIO
SEGUROS**

«Ez jan eta ez lo, izugarrizko tristura zeukan neskatoak»

Miren Agurtzane Bidart-en amak bere alabak tratu txar fisikoak eta sikikoak sufritu dituela salatu du

J. IGARABIDE

Lekarozko institutu-tuan Miren Agurtzane Bidart zugarramurdi-rrak bertze ikasle batzuren aldetik tratu txarrak hartu izan ditu lau hilabetez. Bere amak Xorroxin Irratiari erran zionez, "tratutxar fisikoak eta irri egin zioten, eta guk, ez genekien deus". Egoera honek alaba eritzera eramen zuen: "gure alaba eritu zela sumatu genuelarik medikura eraman ginuen eta eritasunaren arrazoia ezin ginuen ikasi. Ez zuen jaten, ez zuen lo egiten eta izugarritzko tristura zeukan neskatoak". Gertatzen ari zenaz jabetu zenean amak instituturako jo zuen bertako irakasleekin hitzegitera.

"Guk bakarrik justizia eskatzen dugu eta deus gehiago" adierazi zuen akitzeko Miren Agurtzaneren amak.



Baztango Gaztanberaren Kofradiak esneki honen ezaugarriak ezagutzera eman nahi ditu

Argazkia: Karmele

Baztango Gaztanberaren Kofradia martxoaren 6an presentatu zen Elizondon

Martxoaren 6an Elizondon egindako besta ttiki batekin aurkeztu zen Baztango Gaztanberaren Kofradia. Goizean, ongi-torria egin zitzairen ohorezko kofradeei Balleko Etxeko Arkupeetan. Ohorezko kofradeen artean daude bertzeak bertze Erra-

tzuko Domingo Etxandi kaikugilea edota ekitaldi honetara agertu ezin izan zuten Jorge Oteiza eskultorea eta Miguel Delibes idazlea. Euskalerriko bertze zenbait kofradietako ki-deak ere bazeuden lehenbiziko kapitulu honetan. Ondotik,

Meza Nagusia entzun zuten Baztango udaleko ordezkariekin batera. Meza ondotik dantzariak izan ziren plazan.

Baztango Gaztanberaren Kofradiaren helburuetako bat esneki honen ezaugarriak ezagutzera ematea izan da.

ttipi-flash

- ❖ **Errefuxiatuak**
Bosniako gerrako bertze drama' izeneko erakusketa izanen da Arizkunena kultur etxean apirilaren 29tik maiatzaren 12ra.
- ❖ **Jose M^e Ballarena**
Elizondoko intsumisioa hilaren 9an atxilotu zuten. Iruñera eraman ondotik libre utzi bazuten ere, datorren astean epaiketa izanen du.

- ❖ **Erratzun**
pala txapelketa hasi da. Bertan neska eta mutilak parte hartzen dute.
- ❖ **Oronozko kontsulta berria**
Akituxea dago honetzeko Oronoz-Mugairiko mediku kontsulta. Pintatzea eta kanpotik xuritzea falta zaio.

FZ
FOTO ZALDUA

ZURE EZKONTZARAKO
FOTO eta BIDEO
Erreportai on bat

ELIZONDO ☎ 580491
DONEZTEBE ☎ 450364

MARKOEN TAILERRA eta zure karreteak ORDU BATEZ REBELATZEN
DITUGU "FUJI" kalitatearekin.

❖ Jardinak apaintzeko landareak
❖ Tenporadako landareak (hiedrak, jeranioak, petuniak...)
❖ Hazitarako patata (goiza eta beranta)
❖ Koroiak
❖ Ezkontzarako apaingarriak

MERKEALDIAK jardinetako osagarrietan

Arizondo (Bergara Auzoan) • Tfnoa: 580971 • **ARIZKUN**
Errepide Nagusia • Tfnoa: 592200 • **NARBARTE**

ESTHER
LOREDENDA • GARDEN CENTER

Eskisaroi
Jatetxea

Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013
ELIZONDO

ERRATZU
OKINDEGIA

zure eguneroko ogia
453168 - ERRATZU

Berroetako 'Gure Ametsa' elkartea martxan

Martxoaren 5ean egin zuten hamalau familia bilduko dituen elkarte berriaren bizkar besta

PABLO MENDIBURU

Hilaren 5ean egin zuten Berroetan Gure Ametsa elkarteko bizkar besta eta 40 bat lagun bildu ziren afaltzerat. Hamalau familia dira elkarteko bazkide edo sozio. 16 urte baino gutiago dituztenek, ezin dira elkartera bakarrik sartu.

Elizan auzolanean

Berroetako elizaren kanpokoaldean zegoen jardina losatzatu behar dute eta barnean, gorapea moldatzen ari dira.

Bestak

Berroetako bestak maiatzaren 20tik 23a bitarte izanen dira eta Almandozkoak ekainaren 1etik 5era.



Zigako iñauteriak

Mugairiko hamabi etxebizitza sozialen adjudikazioa gibeleratu da

Oronoz-Mugairiko hamabi etxebizitza sozialak egiteko adjudikazioa gibeleratu da. Hiru proposamenei buruz arkitektoek

egindako informea, ez omen zen behar bezala aztertu erran zuten UBkoek. Alkateak berriz, prentsara zenbait filtrazio egin zire-

la salatu zuen. Prozesuaren garbitasuna ziurtatzeko, Hirigintza komisiok proposamen berria aurkeztu beharko du plenora.

ttipi-flash

- ❖ **Arizkungo**
Elkartasuna aldizkariak bertze ale bat aterako du. Horretarako Herriko Etxetik laguntza jasoko du.
- ❖ **Anizko**
frontoia itxuraberritzen ari da, estaltzeko lanak antzinerat doazi.
- ❖ **Zigan**
bideak moldatzeko auzolana egin zen martxoaren 5ean.
- ❖ **Belateko**
tuneleko lanetan ari direnen famili batzuk Almandozera eorri dira bizitzera. Zortzi urterako daude hemen eta umeak Elizondoko eskolara eramaten dituzte.
- ❖ **Berroetako**
ur depuradora akitzeko guti falta da. Denbora txarrarekin ez direnez aritzen uste baino luzeago joan zaie lanak akitzea.

SAN MARTIN LANBIDE ESKOLA

Tfnoa: 59 20 06 – Oronotz-Mugairi



- **MEKANIKA:** ibilgailu edo kotxeen mekanika, traktoreak, soldadura...
- **OIHANZANTZA** edo **FORESTALA**
- **NEKAZARITZA** eta **MEKANIKA**
- **OSTALARITZA, PUERIKULTURA**

Bi urtez. Eskolak, jantokia eta logelak ere badauzka.

Praktikak:

Aste bat Eskolan, eta bertzea, lantegietan praktikak egiten.

Nor matrikula daiteke?

OHO edo EGB egin duena, nahiz eta "Graduado Escolar" ez izan.

EUSKARAZ eta **ERDARAZ**



13.000 libera eman du herri batzarrak zombait ekitalditarako

Bertzeak bertze, «Urdazuri» ikusgarria, ikasleen txangoak eta Nafarroako bertsulari txapelketa laguntzeko

MIXEL ETA JACQUELINE

Herri batzarrak egindako azken bileran, zombait ekitalditarako 13.100 liberako diru laguntza ematea onartu zen:

«Urdazuri» ikusgarriari, 2.000 libera; Eskola publikoari, aste bat Nafarroan iragaiteko 1.100 libera; Nafarroako bertsulari txapelketarako 2.000 libera; eskola publikoari eta pribatuari 4.000 libera bakoitzari aste bat elurretan iragaiteko.

Basurde jatea

Martxoaren 6an Sarako ihiztariek basurde jatea zuten Omordia deitu bakan-tza etxean. Erran be-



Manolo Arozenak eta Jean Pierre Mendiburuk eskuratu zuten finalerako txartela Sarako saioan Egunkaria

har da joan den urtean Berako zakurren laguntzarekin bederatzita basurde hil zituztela Sarako eremuetan.

Baserritarrek gomituak ziren afari hortarat beren lurraldeko ihiztariei uzteagatik. Orotarat 120 bat lagun

bildu ziren eta afaria bikaina izan omen zen. Buruila arte zizpak ixilik egonen dira, kontuz gero!

ttipi-flash

❖ Olhain

ikastola elkartearen biltzar nagusia martxoaren 25ean iraganen da gazteen etxean arratseko 9etan.

❖ Euskal Herriko

Idazleen Biltzarra, urte oroz bezala, Bazko astelehenez (apirilaren 3an) iraganen da poliki-roldegian. Egun hori 'Syndicat d'Initiative' elkar-teak (turismoaz arduratzen den elkar-tea) antolatzen du Euskal Kultur Erakundearen laguntzarekin. Agian usadioko arrakasta ukanen du.

ARLA
ARDOTEGIA
Ardoak eta likorrak
Santiago 56, Tfnoa: 45 32 66
ELIZONDO

KIWI BAZTAN, S.A.
FRUTONDOAK ETA LANDARE ORNAMENTALEN
ZUZENEKO SALMENTA
MINDEGIA eta BULEGOAK:
Sutegia Etxea
31795 LEKAROTZ
☎ (948) 58 11 01
Fax-a: (948) 58 11 01

IPINGI
ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO
UDABERRIKO MODA
Arropak, telak,
konplementoak, bitxikeriak...

LARRAMENDI • Supergarbitzeta Idorrean
Saskaitz plaza 1 (Butano ondoan) • ☎ 45 23 81 • ELIZONDO
Edredoak, alfonbrak, arropak eta larruak, idorrean garbitzen dugu


Frontoi berrirako harri beharrea zaharra bota dute

Bertan gelditu den hutsunea nolabait betetzeko josteta parke gisako leku bat egingen dela erraten da

KORO ETA MARGARI

Frontoi berriarentzat harria behar zela eta zaharra bota egin dute. Horretarako eman duten arrazoia zera da: ez omen zuen merezi handik eta hemendik harri garraioan ibiltzea, eta luze gabe frontoi zaharra ere bota beharko zela. Beraz, otsaileko azken egunak izan ziren frontoiaren azkeneko egunak.

Alde batetik pena handia ematen du pareta haiek deseginak eta zola guztia harri pila batez estalia ikusteak. Gogora etortzen dira zenbat aldiz han pilotan, futboleak, bizikletan... jostatu izana. Bakoitzaren zati bat bota



Frontoi zaharreko pareta desegin bada ere, berria egiteko erabiliko da
Argazkia: KORO

duela ere erran genduzake.

Bertzalde, bertze argitasuna hartu du herriak plazara aile-

gatzerako maldan eta Bixkarreko aldetik begiraturaz. Gainera, toki horretan erraten dena egiten bada, ez

da batere gaizki egonen: josteta parke gisako leku bat, bere kolunpio, xirrista, aulki etabarrekin.

Ez da ideia txarra.

Aurtengo lehen sortzea

1994.eko lehen-biziko jaiotza izan dugu: Axunek bere tripaundia azkenean hustu baitu Ione buru-beltx bat mundura ekartzean. Orain hor zain ditugu Xara eta Agurtzane, gero eta borobilagoak. Aurtengoa marka handia izanen da: hiru haur urte berrean sortzea alegia, hori ez baitugu aspaldi huntan ikusia.

Gainera, orain arte balantzea ezin hobeagoa da: jaiotza bat eta heriotz bihirik ere ez. Hala segi dezala.



ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 9131- URDAZUBI

SAS KAITZ
fontanería
calefacción

Empresa colaboradora de



Era guztietako instalazioak:

Etxekoak, industrialak...

Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

OSKORRI
LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI

DONEZTEBEn

- Alondiga zaharrean, 120 m²ko luxuzko pisuak eraikitzen. Egongela, sukaldea, 4 logela, paretan sartutako armarioak, hidromasajea duten bi bainugela, kalefakzioa. Bertako materielaekin egina.

Prezioa: 12 milioi + IVA

- Odriozola hotelean kalitate handiko pisuak eta apartamentuak eraikitzen ari gara.

Prezioa: 8 milioitik antzinera.

Infomazioa: 45 15 18 (Ezkalo)



EZKONTZAK

Francisco Javier Iturralde Azkarraga eta **M^a Isabel Torres Ustariz**, Irurita eta Elbetekoa, otsailaren 19an.
Roman Garzaron Irazusta eta **M^a Aranzazu Mariñelarena Olano**, Aia eta Leitzakoa, otsailaren 19an.

JAIOTZAK

Beñat Eskudero Irurueta, Elizondokoa, otsailaren 22an.
Loinaz Elizegi Otxandorena, Elizondokoa, otsailaren 23an.
Ainara Saralegi Saenz, Leitzakoa, otsailaren 19an.
Maidier Saralegi Urroz, Leitzakoa, otsailaren 22an.
Ion eta Xabier Zabaleta Sudupe, Leitzakoak, otsailaren 23an.
Miren Juantorena Zuñiga, Leitzakoa, otsailaren 24ean.
Xabier Zestau Barriola, Leitzakoa, martxoaren 1ean.
Ione Zozaia Irazoki, Zugarramurdikoa, martxoaren 7an.
Oihana Otxandorena Dorregarai, Doneztebekoa, otsailaren 23an.
Sara Salaberria Larralde, Doneztebekoa, otsailaren 24an.
Anais Lesage, Sarakoa, otsailaren 14ean.
Ibon Erdozain Ibarra, Berakoa, otsailaren 26an.
Jone Olaetxea Sanz, Berakoa, otsailaren 25ean.
Sara Salaberria Larralde, Sunbillakoa, otsailaren 24ean.

HERIOTZAK

Eusebia Gomez Perez, Elizondokoa, otsailaren 24an, 86 urte.
Asuncion Elizalde Jaimerena, Arizkungoa, otsailaren 27an, 77 urte.
Ramon Mitxelena Agerrebere, Azpilkuetakoa, martxoaren 1ean, 72 urte.
Teresa Mariezkurrena Senosiain, Amaiurkoa, martxoaren 1ean, 60 urte.
Ramon Maia Sukilbide, Arizkungoa, martxoaren 5ean, 68 urte.
Enkarnacion Urkia Susperregi, Etxalarkoa, otsailaren 26an, 57 urte.
Esteban Sarratea Arrupea, Doneztebekoa, martxoaren 6an, 62 urte.
Josefa Irazoki Goienetxe, Berakoa, otsailaren 24ean, 92 urte.
Jose Eltzaurdia Altzuguren, Berakoa, martxoaren 6an, 77 urte.
Pedro Telletxea Otxandorena, Beintza-Labaiengoa, otsailaren 26an, 76 urte.
Jose M^a Saldias, Beintza-Labaiengoa, otsailaren 27an, 79 urte.
Vicente Altzuri Zozaia, Igantzikoa, martxoaren 2an, 75 urte.
Julia Otxandorena, Sunbillakoa, martxoaren 6an.

BENOLA




**ARMAIRU ETA BARRUEN
PROIEKTU ETA DISEINUA**

**ESPEZIALISTAK GARA
ARMAIRU ENPOTRATUETAN**

Berrotaran, 7 • IRUN

Tel. 62 42 80



BEHARREZKO TELEFONOAK

SOS Nafarroa eta Urgentziak 088/061
 Osasun Zentruak
 Elizondo.....452367 / 580235
 Doneztebe 450300
 Lesaka.....637428 / 637336
 Leitza510248 / 510573
Nafarroako Ospitaleak
 Nafarroako ospitalea ... 102100
 SSKo urgentzi zerbitzua246750
 Virgen del Camino erresidentzia 109400
 Gurutze Gorria226404
Gipuzkoako Ospitaleak
 Irungo ospitalea 614600
 Gipuzkoako ospitala ... 460299
 Erresidentzia 453800
Anbulatorioak
 Irun 630264/621106
Anbulantziak
 Oitz 450242/450342
DYA
 Lesaka (larrialdiak).....(943) 464622
 Doneztebe (larrialdiak).....171717
FUNERARIA
 Doneztebe 637404
 Elizondo 580924
 Lesaka..... 637404
Suhiltzaileak
 Oronotz-Mugaire592044
Garraioak
 Bidasotarra 631150
 Baztanesa 580129
 Leitza 515018

TTIPI-TTAPAREN ditu iturrietatik bat udalek ematen duten laguntza da. Laguntzaren eskaria, herri bakoitzak duen jende kopuruaren arabera egina dago. Eskuineko zutabeen dituzue 1993an eskatutako kopurutik momentuz hartu duguna.

1993ko UDAL DIRULAGUNTZAK

| ERAKUNDEA | ESKATUTAKOA | HARTUTAKOA |
|-----------------------------|-------------|----------------------|
| Aresoko Udala | 144.962 | 0 |
| Baztango Udala | 3.769.473 | 0 ¹ |
| Bortzirietako Euskara Mank. | 4.335.174 | 4.335.174 |
| Malerrekako Zerbitzu Mank. | 2.368.781 | 450.000 ¹ |
| Goizuetako Udala | 483.553 | 250.000 |
| Leitzako Udala | 1.600.019 | 1.600.019 |
| Urdazubiko Udala | 261.380 | 0 |
| Sarako Udala | - | 1.000 libera |
| Zugarramurdiko Udala | 169.897 | 0 |

¹ Baztango Udalak 500.000 pezetako ditulaguntza onartua du baina ttipi-ttapak ez du oraindik deus jaso.

² Malerrekako zerbitzu Mankomunitateak 1.368.247 pezetako laguntza onartua du. Kopuru hau orain arte jasotakoa da.



Nekazariendako ikastaroak Doneztebeko Juansenean

ITGk antolatutako Nekazaritzako jarduerak berriei buruzko ikastaroak segitzen dute Doneztebeko Juansenea etxean. Hemendik ekaina bitarte izanen dira ikastaroak. Informazioa jasotzeko edo izena emateko 278011 telefonora deitu.

* Zure ingurua klase guzitako inektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz!

BERA
 DESINFECCIONES
 ☎ 63 01 55
 BERA

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - **BERA**

TRAFFIC

muñeca de trapo

GIZONEZKOEN MODA

EMAKUMEZKOEN MODA

BLAK, IRUNgo LUIS MARIANON



KATTU

OSTATUA
 JATETXEA

- Karta
 - Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • **LESAKA**



Patxi Mindegia juxtu-juxtuan irabazi zion apostua Senosiaini


Hogei segundu eskaxeko abantailarekin bukatu eta berehala ospitalera eraman behar izan zuten zubietarra

Aizkol apostu ikaragarria ikusi ahal izan zuen otsailaren 27an Doneztebeko frontoia gainezka bete zuen jendetzak, sarreran 2.000 pezeta utzi arren. Ikusmina ikaragarria zen eta Patxi Mindegia eta Antonio Senosiainek ez zuten hutsik egin.

Milioi erdi bana zegoen jokoan eta lana berriz, kanaerdiko 20 enbor moztea. Lehenbiziko enborra denbora berean moztu bazuten ere, laister hasi zen aurreratzen gazte zubietarra, pixkanaka diferentzia haundituz. Halere Olagueko aizkolariak bukaerarako gorde zituen indarrak eta azkeneko bortz enborrak berak ekarriak zirela probextuz aldea murrizten joan zen poliki-poliki. Mindegia gaztea berriz, arnasa eta indarririk gabe gelditzen joan zen eta ez zuen nahi ordurako bukatu bere lana. Ia 46 minu-

Patxi Mindegia zubietarrrak apustua irabazi zuen larrilari izan bazen ere

Artxiboa



tu behar izan zituen eta Senosiainek 20 segundu beranduago bukatu zuen.

Azken aizkorada

eman bezain laister konturik gabe geldituzen Patxi Mindegia eta Doneztebeko DY Aren laguntzarekin Iruñeko

ospitalera eraman zuten. Halere, ez zioten deus berezirik topatu eta etxean dago bueltan.

Bote pronto

❖ Gure Txokoa

Berako nesken futbol taldea ederki arit da aurtengoan Gipuzkoako ligan. Lehen postuan geldituz gero igotzeko aukera badu, baina diru kontuak aldrebestuko lirarteke. Izan ere, hurrengo mailan estatu guzian barna jokatu beharko luke.

❖ Lesakako

II. Herri Laisterketan martxoaren 27an burutuko da maila ezberdinetan (benjaminetan hasi eta beteranoak bitarte). Probak goizeko 10etan hasiko dira eta izena emateko 637059 telefonora deitu (Jesus M^a).

❖ Mendi irteerak

Berako Larun mendi taldeak martxoaren 20an trabeisia egingen du eta 27an Txindokira joanen da.

Zubietako Elutsa taldea Isabara joanen da martxoaren 20an.

Goizuetako Umore Onakoak Belaguan izanen dira apirilaren 16 eta 17an.



TELLETXEA
MOBLEAK

Moble erakusketa haundia

- Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu. Fabrikanteak gara.
- Haritz, gereziando, gaztainondo eta pinuzkoak.
- Armario enpotratuak.
- Tresillo eta tapizerietan aukera zabala.
- Ordaintzeko erretasunak eta zure erosketengatik opari ona eramanen duzu.

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE

Berako XXI. pilota txapelketaren finalak jokatu ziren otsailaren 27an

Guztira, hirurogei pilotari baino gehiagok parte hartu du Gure Txokoa elkarteak antolatutako ekitaldi honetan



Berako pilota txapelketako finalistak

GOIKO Arg.

Gure Txokoa elkarteak antolatutako Berako pilota txapelketaren hogeitabatgarren edizioa jokatu zen otsailaren 27an Eztegarafrotoian, honako emaitza hauekin:

Binaka, gomazko

paletarekin: Retegi eta Irastorzak 30, Santamaria eta Fagoagak 21.

Eskuz binaka benjaminetan: Aranibar eta Irazokik 16, Errandonea eta Etxebestek 13.

Eskuz binaka alebinetan: Zubieta eta Maderak 18, Irazoki eta Retegik 9.

Eskuz binaka kadetan: Almandoz eta Saraguetak 18, Oiartzabal eta Lasagak 17.

Hamabostaldiko jokaldiak



Txirrindulariak berriz lanean.

Negualdeko nagiak utzi eta eguzkia ikusi orduko bizikleta hartu eta handik honat hasi da jendea. Konpetizioko txirrindularientzat denboraldi hasiera dena bertzeontzat ere garai polita izanen da.

Doneztebeko aizkol apustuko sustoa.

Beldurgarria izan zen Doneztebeko frontoian zegoen jendearentzat Patxi Mindaegia egoera larri hartan nola zeramaten ikustea. Zorionez, zenbait egun ospitalean pasatu ondotik Patxi etxean dago.

Guztira, 60 bat pilotarik parte hartu dute txapelketa honetan eta antolatzaileek esker

bereziak eman nahi dizkiete, laguntzaile izan diren merkatal etxe guztiei.

KUTTUNA

Navarro Villoslada 10, 1. esk.
(Gurutzearen plaza)
Tfnoa: 151505
31003 IRUÑEA

Laguntza Psikologiko eta sexologikorako zentroa

- Orientazioa, diagnostikoa eta laguntza psikologikoa.
- Depresioa, antsietatea, larritasunak.
- Beldurrak, fobiak.
- Bikotearen harreman arazoak: krisiak, bereizketak, harreman sexualak.
- Sexualitatearen inguruko arazoak:
 - ✗ Inpotentzia.
 - ✗ Gogo falta.
 - ✗ Harreman mingarriak...

Heziketa sexualerako zentroa

Ikastaroak/Hitzaldiak

Sexualitatea, Heziketa sexuala, Antisorkuntza, HIESa, Menopausia, elkarren arteko harremanak, koedukazioa, berdintasunerako heziketa...

Honako talde hauei zuzenduak:

Emakume taldeak, ikasleak, gazteak, Guraso elkarteak, irakasleak, hirugarren adina

Euskaraz eta erdaraz atenditzen dugu

KANTALDIAK

BERA

▶ Martxoaren 18an

Amaia Zubiria Kultur Etxean.

▶ Martxoaren 19an

arratseko 10etan Alzateko pilotalekuan Tapie eta Leturia Band, Mikel Markez eta Zaldibobo. Nafarroa Oinez-94ko lehen ekitaldia.

Z I N E KARTELDEGIA

LEITZA

▶ Martxoak 18-20.

«Atrapado en el tiempo»

▶ Martxoak 25.

«La ciudad de la alegría»

▶ Martxoak 27.

«La ciudad ...» eta «Mira quien habla ahora»

DONEZTEBE

▶ Martxoak 19-20.

«Jennifer 8»

▶ Martxoak 26-27.

«Seneacker»

GUARDIAKO BOTIKAK

▶ Martxoaren 14tik

20ra Arantza, NARBARTe, Irurita, Urdazubi, Basaburua eta Goizueta.

▶ Martxoaren 21etik

27ra Etxalar, Doneztebe, Elizondo (F. Lezaun).

▶ Martxoaren 28tik

apirilaren 3ra Lesaka, Sunbilla, Elizondo (J. Iturralde).

ERREZETA



Legatza saltsan

Osagaiak

• 250 gr. ko lau legatz xerra • 3 tomate • 2 tipula • 3 patata • ardo xuri baso bat • gatza • baratxuriak • piperminak • olioa • ozpina •

Prestatzeko manera

Tipula, patata eta tomatea xerratan puxkatu. Kaxula ba-

tean olio pixka bat paratu eta tipula zola guztia estaliz, gainetik patata eta gero tomatea modu berean. Gatza eta ardo xuria bota

eta utzi egiten. Bertzalde legatz xerrak olioan busti, gatza eman eta labean sartu 15 minutuz 180ºtan.

Refrito bat prestatuko dugu olio, baratxuri eta piper mine-



Felix
ABAURREA
Alkartetxea
• Lesaka •

kin. Egin denean utzi pixkot hozten eta ozpina erantsi. Suan jarri ligatu arte. Serbitzeko, plateraren zolean lehen egindako fondoa jarri, gero legatza eta gainetik refritoa.

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

• **Zerrikumea** (20 kilokoa): 5.300 pzta.
• **Zerri gizena** (95 - 100): 149 pzta/kilo
• **Zerramak**: 90-100 pzta./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

• **Aretze gizenak**
Idixkoak: Pzta/kg. Kanal
Extra 660
1.koa 640
2.koa 610

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal

Extra 670
1.koa 650
2.koa 620
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

• Aretze tikiak

(15 egun ingurukoak):

Nabarrak: urruxak 25-30.000 eta idixkoak 39-42.000 Pzta.

Mestizoak: urruxak 37-42.000 eta idixkoak 49-54.000 pzta.

• Behi zaharrak:

Behi nabar gizena: 430-440 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 490-500 Pzta /Kg. Kanal.

DATU-ITURRIAK: EHNE,

ZUBIRIA MINDEGIAK, KIWU BAZTAN...



❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza
• **Bertako sagarrondoa** 930.
• **Udareondoa** 930 pta.
• **Bertako aranondoa** 1.050 pta.
• **Gereziondoa** 1.050 pta.
• **Kiwiondoa** 600 pta. (2 urtek.)
• **Fejoaondoa** 1.000 pta. (2 urt.)



❖ BARAZKIAK ❖

• **Tipula** zientoa 250 pta.
• **Udaberriko aza** 400 pta.
• **Letxuga** zientoa 500 pta.
• **Tomatea** 30-40 pta. bak.

LEGARRA

• PAPERTEGIA • TABAKOAK •
• LIBURUAK • OPARIAK •

ZERBITZUAK

☞ Fax Publikoa
☞ Enkuademazioak
☞ Inprenta lanak • fotokopiak
☞ **%25eko**
deskuentoa
diska, kasette eta liburuetan

Legarrea 9, ☎ 637030 - LESAKA

**ZUBIRIA
MINDEGIAK**

• *Etxeak apaintzeko landareak*
• *Baso landareak*
• *Bertako frutondoak*

ARRAIOZ • NARBARTE
Tfnoak: 452032 (bulegoan) • 592034 (etxean)
Faxa: 948-581274

«Schindler's List»

Steven SPIELBERG
EEBB - 1993



Egunkaria

Parke Jurasikoko dinosau-rioekin izan duen arrakasta komertzialaren ondotik, filme historiko batekin dator Steven Spielberg. Zinemaren Midas errege honek -ukitzen duen gutzia dirua bihurtzen duelako alegia- 1.100 judutar nazietatik salbatu zituen gizonaren istorioa kontatzen du 'Schindler-en lista' honetan.

Filme hunkigarria bada ere, zaila da gaur egun ikusleen erraietara iristea, ia hiru ordu horietako fotograma eta planu guzti-guztiak azaldu baitira munduko egunkari-aldizkari-telebisi- sio guzietan. Eguerdiko teleberri guzietan, Sarajevoko merkatuaren txiki-zioa mahaiaren gainean jartzen digutenean, Somaliako haurren begiradak loa kentzen ez digutenean, Libanoko sarraskiak arraultze frexituak jaten ikusten ditugunean, zaila da nazien Alemania urrun hartako -50 urte baino gehixeago- istorioak gure

bihotza hunkitzea. Baliteke negar edota hotzikaretan hasteko gaitasuna itzalia izatea.

Halere, bada gauza hunkigarriak filme honetan Ederra da pasarte aunitan. Ederra, garbia eta apaindurik gabekoa baita, gezur txiki pare bat eta hiru trikimailu baizik

erabiltzen ez dituelako. Ederra, panoramikarik eskaintzen ez duelako, beti biktimaren eta borroaren arteko dantza arriskutsu horretan.

Spielbergek eutsi egin dio 'El diablo sobre ruedas' pelikulatik erakutsi zigun zinema sortzeko ia iotasun paregabeari.

Abentura zinea, fantastikoa, beldurrezkoa, historikoa... ia denetik egin du orain arte. Batzuk musikal bat egitea falta zaiola errana dute dagoeneko. Spielbergen hurrengo apustua -dirua jokatu daiteke honelakotan- izanen ote da?

AGENDA EGUNEZ EGUN

BATZARRAK

SARA

► **Martxoaren 25ean**
Sarako Olhain ikastolaren biltzarra, gazteen etxean arratseko 9etan.

KONTZERTUAK

LEITZA

► **Martxoaren 26an**
11etan frontoian, Sutagar, Bizkarrezurra eta Lin Ton Taun.

LESKA

► **Martxoaren 26an**
Josi y los Javis taldearekin Blues gaua.

BERTSO SAIOAK

LESKA

► **Martxoaren 27an**
Arratsaldeko 4,30etan Nafarroako bertso txapelketaren finala frontoian.

► **Apirilaren 2an**
arratseko 10,30etan ikastolaren aldeko bertso saioa frontoian. E. Arozena, Euskitze, X. Lizaso, Telleria, Peñagarikano eta Egaña. Gai-jartzailea: M. Arozena.

KONTZERTUAK

LESKA

► **Martxoaren 18an**
10,30etan, talde sorpresa Atxaspin.

IRURITA

► **Martxoaren 19an**
gaueko 11etan rock kontzertua errebote plazan. Bizkarrezurra, Censura eta Eskonbro taldeak.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

LESKA:

• Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- ✎ Langile Autonomoak
- ✎ Nekazariak eta mendi langileak
- ✎ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ✎ Lan-kontratutarako laguntzak
- ✎ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ✎ Diru-laguntza ezberdinak
- ✎ Kontabilitateak
- ✎ IVA eta IRPF
- ✎ Errenta aitopenak
- ✎ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ✎ Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU (9) 48 - 63 11 88 ☎

ETXEBIZITZAK

DONEZTEBE. Pisua salgai, 80 m² erabilgarri, kalefakzioa, trasteroa, mobleak barne. 9 milioi. ☎ 450927 (20-23etara).

ELIZONDO. Santiago 60an pisua salgai. 90 m², hiru logela, jantokia, bi bainugela eta trasteroa. Balkona ere badu. Prezio negoziagarria. ☎ 580453 (lan orduetan).

BERA. Pisua salgai. Legia 15. ☎ 631135.

GOIZUETA. Borda-na-bea salgai, Tartazu auzoan. 220 m² + 6.000 m² landarerik gabe + 45.000 m² landatua. ☎ 514162.

BAZTAN - MALERREKA. Etxea erosi nahi dugu bertan bizitzeko. ☎ 580941 (Arantza eta Mikel, 6etatik antzina).

IBILGAILUAK

Ducatti motoa 500ekoa salgai. la berria. Prezio ona. ☎ 943-643812.

Mobileta egoera onean salgai. Seguroarekin. Prezio negoziagarria. ☎ 943-643812.

Ford Orion GLD Diesel (SS-U) salgai, 400.000 pezetan. ☎ 631283.

Renault 21 GTD (NA-U) salgain. ☎ 637705.

LANA

Mueble zaharrak txukuntzen dira. Arreglorik egin behar izanez gero egonen ginamate. ☎ 450769 edo 943-635783 (Jon, 9etatik 14etara).

Bi neska eskeintzen dira orduka lan egiteko. ☎ 637734 (Lourdes, 11etatik 3etara).

Elektrizista ekonomiko lanerako prest. ☎ 631283.

DENETARIK

Bideo konsola salgai, Megadrive compact diskekin eta 7 joku. Gutti erabilia. ☎ 510190 (Gorka).

Kaja erregistradora (komertziorakoa) salgai. Berria eta prezio onean. ☎ 637034.

Aspiradore bat eroso nuke etxerako, bigarren eskukoa. ☎ 581009.

Ohatzea (1,05 metrokoa) salgai somier, koltxoi eta mesanotxearekin. Kolonbiar estilokoa. Ximplea eta hagitz egoera onean, 35.000 pezetan. ☎ 943-643812.

'Remalladora' bat nahi genuke, erabilia. ☎ 450883.

Erremolke ttiki bat kottxearentzat salgai. ☎ 510404.

Urgentea! Neska-mutikoen komunio jantziak saltzen ditut, negozioia ixteagatik. ☎ 630552.

Kartera bat aurkitu dut Etxalarren. ☎ 635174.

Esne tankea 320 litrokoa salgai Ezkurran. ☎ 615078.

Behiak jeizteko makina salgai Ezkurran. ☎ 615078.

Elektronika klaseak behar ditut, Baztan, Bidasoa edo Irun aldean. Deitu ☎ (948) 452021.

Sukalde kalefaktore-ekonomika bat salgai. ☎ 581121.

AZIENDAK

Bi zakur salgai (kanitxeak), 2.500 pezeta bakoitza. ☎ 610867 (1etatik 2etara).

Ardi zakurkumeak, merke eta onak. ☎ 450216.

Duela zenbait zenbaki Maritxu astoa senar elegante baten bila ari zela agertu zen. Asto arra izanen gero, deitu telefono honetara. ☎ 450286.

AGURRAK

Elizondoko Florentxi Barberenari: zutaz maitemindurik nago. P. Miguel C.

Berako Luis M^a Errandona eta Javier Matxikoteri: zorionak martxoaren 2 eta 3an zuen urtebetetzeagatik. Zuen gelako lagunak.

Zorionak Javier Matxikote, Luis M^a Errandona eta Izaskun Tapiari. Igantziko I.S. eta I.M.

Urdazubiko Sastarreneko Anttoni amatxiari eta Olabideko Lourdes Mendibururi martxoaren 10ean zorionak zuen 81. eta 22. urtebetetzean. Alizia.


Iparraldeko Teresa Hualderi nere agurrik beroena. Ainhoa Mutuberria.

Lesakako Jon Garrori. Zorionak zure urtebetetzean eta muxu haundi bat zure ezpain gozotan. Badakizu nor garen.

40 ESTABLEZIMENDU ZURE ZERBITZURA

**13 arropa denda, kirol denda bat, optika bat,
2 oihal denda, lentzeria bat, zapata denda bat,
4 kafetegi, inprimategi azkar bat, kristaldegi bat,
2 banketxe, bulego materiala, argazki denda bat,
dekorazio denda bat, supermerkatu bat,
aseguro etxe bat, ileapaindegi mixto bat, drogeria bat,
bidai agentzia bat, PVCKo nahiz zurezko leiho eta ateak,
hizkuntz akademia bat, moketak eta pinturak, etxe saltzaile bat...**

*Denetarik gauzarik hoberenak.
Irun erdi-erdian. Parkina eta guzi.*



DONAMARIAKO ERROTA SALGAI

SUBASTA:

Martxoaren 25ean
eguerdiko 12etan

- Stotoa, lehen solairua etta ganbara, guztira 188 m².
- 300 m²ko lur eremua.
- Alhozko subasta egingen da eta tantu bakoitzak 5.000 pezeta balio ditu.
- Hiasierako prezioa: 4 milioi gehi IVA.



*Interesatuak deitu
450050 edo 450562
telefonoetara*


MOBLEAK A METS

Tfnoak: 630537 • 631443 – BERA

BADUZU NON AUKERATU



O.H.O BUKATUTA ZER?



**'TOKI-ONA'
INSTITUTUA**

• **BERA** •

☎ 630411

HEMEN

IKASTEN DIREN
GAIAK

ONDOREN

**BATXILLERRA
EGIN DEZAKEZU**

- EUSKARA
- GAZTELERA
- GIZA ZIENTZIAK
- MATEMATIKA
- INGLES/FRANTSESA
- ZIENTZI ESPERIMENTALAK
- HEZKUNTZA FISIKOAK
- ARTISTIKA
- TEKNOLOGIA, E.A....

- ❖ **UNIBERTSITATEA**
- ❖ **LANBIDE HEZIKETA**
- ❖ **MOTA DESBERDINETAKO IKASTAROAK**

Juan Arana 1
Ifnoa eta faxa: (943) 611767
IRUN

EXANIZ

Lesakako Iturria anaiak



**Ur ixuri
gehiagorik ez
zure bainuan!
Bañera nahiz
dutxarako
manparatan
aukerarik
haundiena,
baita saunako
kabinetan ere**

**GURE HIRU
ARDATZAK:**

**Esperientzia
Kalitatea
Prezio onak**

